[1]

**ORIENTACIONES PARA ACTIVIDADES EN LA *NUEVA NORMALIDAD***

En el marco de la “nueva normalidad” en la que ha entrado la Comunidad Autónoma de Euskadi, todos los centros públicos y privados tienen la obligación de mantener el control del aforo permitido, asegurar la e limpieza y desinfección de espacios, facilitar las medidas para la higiene de manos y garantizar el mantenimiento de la distancia interpersonal de seguridad. Teniendo en cuenta la normativa sanitaria vigente en cada momento y las disposiciones específicas dadas en nuestra Diócesis según Decreto del Obispo de Bilbao, de 19-6-2020, ofrecemos este **VADEMECUM DE PREGUNTAS Y RESPUESTAS actualizado**

## 1.- Acondicionar los espacios

- **Si el templo ha estado totalmente cerrado, ¿hay que hacer limpieza y/o desinfección antes de abrir?**

  Sí hay que hacer limpieza. La desinfección solo es necesaria si en las dos últimas semanas ha podido haber personas contagiadas en el recinto.

- **¿Podemos celebrar varias misas seguidas?**

  Sí. Pero dejando tiempo suficiente para la limpieza y desinfección preceptiva entre celebraciones.

- **¿Tenemos que limpiar los bancos?**

  Si, limpiar bancos y suelo en los lugares ocupados después de cada celebración.

- **¿Tenemos que limpiar los pomos, manillas... aunque las puertas hayan estado abiertas?**

  Sí. Con producto desinfectante.

- **¿Qué productos podemos utilizar para la limpieza y desinfección de los templos?**

---

DECRETO del Obispo de Decreto del Obispo del 19 de junio de de 2020 [hay que cambiar los aforos y la distancia de 2 metros)
DECRETO 14/2020, de 18 de junio, del Lehendakari, por el que se declara la superación de la fase 3 del Plan para la desescalada, se dejan sin efecto las medidas adoptadas en el marco del estado de alarma y se establece la entrada en la nueva normalidad a partir de las 00:00 horas del día 19 de junio de 2020.
ORDEN de 18 de junio de 2020, de la Consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, una vez superada la fase 3 del Plan para la transición hacia una nueva normalidad.
Recomendaciones del Consejo Episcopal para actividades juveniles en verano, del 9 de junio de 2020 y Anexo de medidas de prevención recomendadas por la Delegación de Anuncio y Catequesis
ORDEN de 15 de julio de 2020, de la Consejera de Salud, por la que se modifica el anexo de la Orden de 18 de junio de 2020, de la Consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, una vez superada la fase 3 del Plan para la transición hacia una nueva normalidad.

- Los suelos modernos de baldosas o mármoles pueden limpiarse con agua y jabón e incluso agua y lejía, sin superar el 0'5 %, tal y como recomiendan las autoridades sanitarias.
- Para los pavimentos antiguos y/o de madera, utilizar jabón neutro (no lejía, ni fregasuelos convencionales). El jabón es un buen agente desinfectante para el Covid-19. Lo ideal es proceder a la limpieza, dejarlo actuar un minuto y retirar la solución jabonosa con agua. Evitar siempre que se formen charcos.
- Para superficies de metal o cristales modernos, pulverizar con jabón neutro mezclado con agua, dejando actuar un minuto y retirando luego los residuos con tela o papel humedecido en agua.
- Para muebles, bancos y puertas de madera que no sean bienes culturales, utilizar agua y jabón neutro (evitar el alcohol y la lejía).
- Los objetos litúrgicos modernos pueden limpiarse con etanol al 70% o agua y jabón, secándolos bien con un paño.
- Para la desinfección, utilizar siempre productos homologados, tomando en consideración el valor artístico y cultural del patrimonio. En bienes culturales como tallas, cuadros, retablos, mesas de retablos, orfebrería de más de 100 años, lo mejor es no tocarlos y, en todo caso, no utilizar nunca ni lejía, ni sosas, ni amoniaco, ni alcohol, ni detergentes industriales.

**2.- Acomodar a las personas**

- **¿Tenemos que controlar cuánta gente entra en cada celebración**?

Sí. Hasta completar el 75 % de aforo. Así será, hasta que haya nueva normativa.

- **¿Marcamos los sitios**?

Sí. Para que en todo momento las personas sepan dónde pueden estar y dónde no

- **¿Cuánta distancia tiene que haber entre personas en los bancos?**

Como mínimo tiene que haber 1 metro y medio entre persona y persona, teniendo en cuenta que la mascarilla es obligatoria y que no se puede sobrepasar el 75 % del aforo permitido

- **¿Cuánta distancia tiene que haber entre las personas en la fila de la comunión?**

1,5 metro

- **¿Conviene marcar en el suelo por dónde se entra y por donde se sale?**

Sí.

- **¿Podemos utilizar cinta aislante para marcar los bancos y el suelo?**

No, si son de madera. Es mejor utilizar cinta de carrocero.

- **¿Puede haber agua bendita en las pilas?**

No.

- **¿Podemos utilizar los mandos a distancia para encender las pantallas?**

Sí. Pero deben desinfectarse después de su uso.

**3..- Medidas de prevención durante las celebraciones**

- **¿Tenemos que colocar dispensadores de gel para desinfectarnos las manos**?

Sí. En la entrada del templo, para que la gente pueda hacerlo al entrar y al salir.

- **¿Tenemos que usar guantes?**

No es obligatorio.

- **Si la gente viene con guantes, ¿tiene que desinfectarlos también?**

Si.

- **¿Hay que usar mascarilla dentro del templo?**

Su uso es obligatorio (tanto en los bancos, como en los accesos y en las filas para la communion. Las personas que participant en la celebración también deben usar mascarilla, except cuando leen o dirigen la palabra.

- **¿La gente puede dejar objetos en los bancos?**

No.

- **¿Puede haber hojas de cantos, folletos, etc. en los bancos?**

Si son de uso compartido, no es recomendable

- **¿Puede haber coros en las iglesias?**

Sí, siempre que se cumplan las normas de distancia interpersonal de un metro y medio y las normas sanitarias vigentes. Si es possible, se recomienda un solo cantor, algunas voces individuales y un solo instrumento.

- **¿Podemos dejar que los fieles toquen o besen las imágenes u otros objetos que hay en el templo?**

No es recomendable para evitar contagios.

- **¿Debemos organizar a los fieles para que hagan filas para comulgar?**

Si.

- **¿Podemos cantar durante la comunión?**

No. Se recomienda la comunión en silencio.

- **¿Hay que decir amén al recibir la comunión?**

No. El diálogo individual de la comunión ("El Cuerpo de Cristo". "Amén"), se pronunciará de forma colectiva después de la respuesta "Señor no soy digno…", distribuyéndose la Eucaristía en silencio.

- **Los ministros de la eucaristía, ¿tienen que desinfectarse las manos?**

Sí. Antes y después de distribuir la communion, el sacerdote celebrante y los demás ministros se desinfectarán las manos.

- **Los ministros de la eucaristía, ¿deben llevar mascarilla?**

Sí

- **¿Se puede comulgar con guantes?**

No es recomendable, pero si alguien llega en la fila con guantes, no pedirle que se los quite.

- **Los objetos litúrgicos ¿tienen que estar cubiertos durante la plegaria eucarística con la palia?**

Si.

- **¿Nos podemos dar la paz?**

Es recomendable sustituirlo por otro gesto, evitando el contacto físico entre personas.

- **¿Podemos pasar el cestillo para las colectas?**

Se recomienda colocarlo a la salida para recoger posibles donativos. Puede mantenerse el momento tradicional de la colecta, extremando el cuidado y evitando en todo caso que el cesto pase de mano en mano. Deberán adoptarse las medidas higiénicas para prevenir cualquier contagio.

- **Para recoger el dinero que haya en cestillos o en los lugares de ofrendas de velas ¿utilizamos guantes y mascarillas?**

Sí. Las personas que recojan el dinero en metálico, , deben usar mascarilla y guantes después de recogerlo y al contarlo. Téngase especial cuidado al retirar los guantes y en todo caso, es necesario desinfectarse las manos después de manejar monedas.

- **¿Ponemos papeleras en la entrada?**

Es recomendable.

**4.- Sobre funerales y exequias**

- **¿Se pueden celebrar funerales y exequias?**

SÍ, respetando siempre la normativa de aforo del 75% y el resto de condiciones aplicables al culto público.

Hay que insistir en el mantenimiento de la distancia interpersonal, en el uso obligatorio de mascarillas y en que deben evitarse las muestras de afecto que requieran contacto físico.

- **¿Se pueden celebrar velatorios?**

SÍ. Tal y como refleja la Orden de la Consejería de Sanidad del 18 de junio de 2020, los velatorios podrán realizarse en todo tipo de instalaciones, públicas o privadas, con un límite máximo, en cada momento, de 65 personas en espacios al aire libre y 30 en espacios cerrados . Se recuerda que el uso obligatorio de mascarilla

. **¿Cómo debe realizarse la comitiva?**

La participación en la comitiva para el enterramiento o despedida para cremación de la persona fallecida se restringe a un máximo de 75 personas, entre familiares y allegados, sean o no convivientes, además de, en su caso, el ministro de culto o persona asimilada de la confesión respectiva para la práctica de los ritos funerarios de despedida del difunto. En todo caso, deberán respetarse las medidas de seguridad e higiene establecidas por las autoridades sanitarias para la prevención del COVID-19, relativas al mantenimiento de una distancia mínima de seguridad de metro y medio, uso obligatorio de mascarilla, higiene de manos y etiqueta respiratoria.

- **Donde se celebren funerales con cuerpo presente, ¿cómo proceder?**

El féretro solo puede ser tocado por los técnicos de la funeraria. Los familiares y demás asistentes deben abstenerse de hacerlo.

## 5.- Sobre la administración de sacramentos

- **¿Se pueden celebrar comuniones, bodas y confirmaciones?**

Si, respetando la normativa del aforo, del resto de condiciones aplicables al culto público, así como las normas específicas aconsejadas en la nota de la Ejecutiva de la CEE del pasado 11 de mayo de 2020

- **¿Podemos celebrar el Sacramento de la Reconciliación?**

Sí. Lo mejor es escoger un espacio amplio para mantener la distancia social y la confidencialidad. Es obligatorio el uso de las mascarillas y la desinfección de manos, tanto para los fieles como para el confessor. Se recomienda no tocar superficies y se aconseja la limpieza continuada de la sede del sacramento de la reconciliación.

- **¿Podemos celebrar Bautismos?**

Sí. Con Rito breve y extremando las medidas de higiene, utilizando un recipiente para la administración del agua bautismal sin que vuelva a la pila bautismal (que debe permanecer vacía después de la administración del bautismo). Para las unciones se recomienda utilizar un algodón de un solo uso, incinerándose al terminar la celebración. Cuando haya varios bautizandos, extremar las normas de higiene y desinfección de manos entre una y otra administración del Bautismo. Se recuerda el uso obligatorio de mascarilla

- **¿Podemos celebrar Confirmaciones?**

Si. Respetando las normas de aforo y la distancia social recomendada y el uso obligatorio de mascarilla. Para la crismación es conveniente utilizar un algodón de un solo uso, incinerándose al terminar la celebración. No olvidar la desinfección de manos entre cada contacto, cuando haya varios confirmandos.

- **¿Podemos celebrar matrimonios?**

Sí. Respetando las normas canónicas así como las normas sanitarias vigentes en cada momento. Según la Orden de la Consejería de Sanidad del 18 de junio de 2020, las ceremonias nupciales podrán realizarse siempre que no se supere el 75% del aforo permitido.

Durante la celebración de las ceremonias se deberán cumplir las medidas de higiene y prevención establecidas por las autoridades sanitarias relativas al mantenimiento de la distancia social, higiene de manos, uso obligatorio de mascarillas y etiqueta respiratoria.

- **¿Podemos llevar anillos y arras?**

Los anillos y arras serán manipulados exclusivamente por los contrayentes. Para la firma de los contrayentes y testigos es recomendable que se desinfecten las manos antes y que utilicen su propio bolígrafo. Si no es posible, desinfectar el boligrafo después de cada uso. Extremar la prudencia en la entrega de la documentación.

- **¿Podemos administrar la Unción de Enfermos?**

Sí. Con rito breve y utilizando un algodón de único uso para administrar los Óleos. Obsérvense las indicaciones de Protección indicadas por las autoridades sanitarias (mascarilla obligatoria, desinfección de manos y etiqueta respiratoria).
Es recomendable que los sacerdotes de más edad o enfermos no administren este sacramento.

**6.- Sobre visitas a la Iglesia para la oración y adoración del Santísimo**

- **¿Podemos dejar que se entre en los templos para la Adoración del Santísimo y para la Oración?**

Sí. Pero hay que seguir las normas sanitarias respecto a higiene y aforo y las pautas generales ofrecidas para los templos, a fin de evitar aglomeraciones. Es conveniente señalar los espacios destinados a Oración y Adoración. Cada parroquia valorará la conveniencia de establecer horarios determinados. El uso de mascarilla es obligatorio.

Se recomienda establecer marcas para que los fieles no toquen las imágenes y esculturas de los templos, ni las vitrinas, para evitar contagios.

**7.- Sobre actividades en los despachos parroquiales y dependencias parroquiales**

- **¿Cómo tenemos que realizar las actividades en los despachos parroquiales?**
- Hay que adoptar medidas de ventilación, limpieza y desinfección adecuadas a las características de los despachos y la intensidad de uso.
- Los lugares comunes limitarán su aforo al 60% y se deben adoptar medidas para evitar aglomeraciones.
- Hay que poner a disposición geles hidroalcóholicos o desinfectantes
- Hay que concertar cita previa y acudir con mascarilla, cuyo uso será obligatorio
- Siempre que se atienda al público y siempre que se manejen documentos y libros sacramentales, es obligatorio el uso de mascarilla. Se recomienda que sea siempre la misma persona la que utilice los libros sacramentales para certificados e inscripciones y que se desinfecte las manos antes y después de utilizarlos.
- Hay que desinfectar los ordenadores y dispositivos que sean de uso compartido después de cada uso.
- Se recomienda que las personas de edad avanzada o de grupo de riesgo no realicen actividades en los despachos parroquiales y que en todo caso se extremen las medidas de prevención

- **¿Podemos convocar reuniones y encuentros?**

Cada Unidad Pastoral y/o parroquia podrá determinar qué actividades mantiene de forma virtual. Se recomienda mantener la atención telefónica en la medida de lo posible y realizar sólo las reuniones presenciales indispensables. Se podrán convocar encuentros prebautismales y prematrimoniales.

En todo caso, se seguirán las medidas recomendadas
.- En locales parroquiales y similares, aforo máximo de 25 personas, con distancia interpersonal de 1,5 metros.
.- En locales tipo sala de conferencias o teatro, el aforo será 60% , con distancia mínima de 1,5 metros entre personas (salvo las que conviven en el mismo domicilio)
.- Seguir las normas de higiene y desinfección de manos

.- Es obligatorio el uso de mascarilla
.- Limpiar la sala de reunión después de cada uso
.- Desinfectar mandos de distancia y dispositivos compartidos
.- Evitar compartir material de oficina y evitar el uso compartido de folletos, papeles, etc.
.- Se recomienda reservar las salas con antelación

- **¿Podemos ceder salas de reuniones a grupos ajenos a las parroquias (vecinos, coros, etc.?**

Sí, siempre que se sigan estrictamente las normas de higiene, uso obligatorio de mascarillas, desinfección y distanciamiento interpersonal de 1,5 metros, así como extremar la limpieza de superficies, asientos, pomos, interruptores, etc. El grupo que convoque la reunión deberá responsabilizarse de que la sala quede limpia y desinfectada después del encuentro y siempre deberá haber una persona responsable del cumplimiento de las normas.
En ningún caso, podrán reunirse grupos que superen el 60% del aforo permitido en la sala correspondiente.

**8- Sobre las visitas turísticas y visitas guiadas**

Además de las normas específicas de higiene, limpieza, ventilación y desinfección que deben cumplir los centros de culto, en aquellos templos, ermitas, santuarios y espacios religiosos que se permitan **visitas turísticas deberá tenerse en cuenta lo expuesto en la** Orden de la Consejería de Sanidad del 18 de junio de 2020, limitando el aforo al 60% permitido y su modificación por la Orden del 15 de julio de 2020. El uso de la mascarilla es obligatorio.

- **¿Cuánta gente podemos recibir en cada visita?**

Los grupos no deben superar las 30 personas y debe respetarse siempre la distancia social de metro y medio entre personas. El uso de mascarilla es obligatorio.
Cuando las características del inmueble impliquen que la restricción del aforo al 60% no permita cumplir con la distancia recomendable, prevalecerá la aplicación de la distancia de seguridad interpersonal como criterio para determinar el aforo máximo permitido.

- **¿Los guías y visitantes tienen que desifectarse las manos?**

Sí. Antes y después de las visitas.

- **¿Puede haber personas voluntarias de la parroquia guiando las visitas?**

Sí. Pero deben cumplir las normas de higiene, uso obligatorio de mascarillas, y distanciamiento interpersonal

- **¿Si los guías vienen con cada grupo, tienen que cumplir las normas de higiene y distanciamiento social**?

Sí.

- **¿Los visitantes tienen que llevar mascarilla?**

Sí, siempre

- **¿Podemos marcar los circuitos por los que se puedan circular en los templos?**

Sí. Para garantizar el distanciamiento de metro y medio entre las personas, incluso si hay audioguías que se activen en el móvil.

- **¿Podemos establecer distancia respecto a bienes culturales, vitrinas, etc?**

Sí. Para evitar que se toquen y que sean foco de contagios

- **¿Podemos dar folletos, o similar?**

Durante el desarrollo de la actividad no se podrán suministrar audioguías, folletos u otro material análogo que sea de uso compartido. Si hay audioguías, se recomienda que, si es posible, se adapten para que se active en el móvil de cada persona.

- **En las tiendas de ventas de recuerdos, estampitas, etc ¿hay que cumplir medidas especiales?**

Hay que cumplir las medidas de higiene, el uso obligatorio de mascarillas, limpieza y desinfección recomendadas y garantizar la distancia interpersonal de metro y medio entre las personas.

- **Después de cada visita ¿hay que limpiar y desinfectar?**

Sí. Y hay que tener muy en cuenta las normas específicas para monumentos de patrimonio histórico-artístico y los bienes culturales.

**9.- Programación de actividades juveniles de verano**

**¿Podemos organizar actividades pastorales con los grupos de preadolescencia, adolescencia y juventud?**

Sí. Pero se recomienda no organizar actividades ni campamentos con pernocta dentro de la Comunidad Autónoma de Euskadi ni acudir a otras actividades o campamentos que requieran desplazamientos interprovinciales. Se seguirán las recomendaciones dadas por el Consejo Episcopal con fecha 9 de junio de 2020 y los anexos publicados por la Delegación de Anuncio y Catequesis.

**Bilbao, 16 de julio de 2020**

## Referencias


https://conferenciaepiscopal.es/wp-content/uploads/2020/04/Medidas-reinicio-culto-p%C3%BAblico-en-templos-cat%C3%B3licos.pdf

https://conferenciaepiscopal.es/celebracion-de-la-iglesia-en-las-fases-de-desescalada/

https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/03/pdfs/BOE-A-2020-4789.pdf

https://boe.es/boe/dias/2020/05/16/pdfs/BOE-A-2020-5088.pdf

https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/30/pdfs/BOE-A-2020-5469.pdf

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/05/2001983a.shtml

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002212a.pdf

**NORMALTASUN BARRIKO JARDUETARAKO JARRAIBIDEAK**[1]

Euskadiko Autonomia Erkidegoa sartu dan "normaltasun barriaren" eremuan, leku publiko eta pribatu guztiek sartu daiteken jente-kopurua kontrolatu egin behar dabe, lekuak garbitu eta desinfektatu, eskuak garbitzeko bideak jarri eta lagun arteko segurtasun-tarteari eutsi. Unean-unean indarrean dan arautegia eta Bilboko Gotzainaren 2020-06-19ko Aginduaren bitartez gure Eleizbarrutirako beren-beregi aurkeztutako xedapenak kontuan hartuta, **GALDERA ETA ERANTZUNEN VEDEMECUM** hau aurkezten dogu eguneratuta, jarraibideak emoteko eta sortu daitekezan zalantzak argitzeko.

## 1.- Lekuak atondu

- **Eleiza erabat itxita egon bada, garbitu edota desinfektatu egin behar dogu zabaldu aurretik?**

Bai, garbiketa egin behar dogu. Desinfektatzea, azken aste bietan leku horretan kutsatutako pertsonaren bat egon bada izango da ezinbestekoa.

- **Meza bat baino gehiago ospatu daiteke jarraian?**

Bai, baina denpora nahiko itziz ospakizunen arteko ezinbesteko garbitasun eta desinfekzinorako.

- **Bankuak garbitu behar doguz?**

Bai, ospakizun bakotxaren ostean, okupatutako banku eta lurzorua garbitu.

- **Eskutokiak, heldulekuak,… garbitu egin behar doguz nahiz eta ateak zabalik egon?**

Bai, desinfektatzailearekin.

- **Ze produktu erabili daikegu elizak garbitu eta desinfektatzeko?**

- Baldosa edo marmoldun lurzoru modernoak ur eta xaboiz, edo ur eta lixibaz –osasun-arloko agintariek gomendatzen dabenez, %0,5a gainditu barik-, garbitu daitekez
- Antzinako edota egurrezko zoladuretarako, xaboi neutroa erabili (ez lixibarik, ezta zoru-garbitzaile arruntik ere). Xaboia, desinfektatzaile ona da Covid-19ari aurre egiteko. Egokiena, garbitu, minutu batez eragina egiten itzi eta, ostean, xaboia uraz kentzea da. Ez daitela putzurik egin.
- Metalezko gainazal edo kristal modernoentan, xaboi neutroa uraz nahastatuta lainoztatu, minutu batez eragina egiten itzi eta ondoren hondarrak oihal batez edo uretan bustitako paperaz kendu.

---

[1] Gotzainaren 2020.eko ekainaren 19ko AGINDUA (sartu daiteken jente-kopurua eta 2 metroko tartea aldatu behar dira).
Lehendakariaren ekainaren 18ko 14/2020 AGINDUA: normaltasunerako prozesuko Egitasmoaren 3. aldia bertan behera geratzen da, alarma-egoeran hartutako neurriak bertan behera geratzen dira eta 2020.eko ekainaren 19ko 00:00etan normaltasun barrian sartzea ezartzen da.
Osasun arloko Sailburuaren 2020.eko ekainaren 18ko AGINDUA, normaltasun barrirako prozesuko Egitasmoan 3. aldia gainditu ondoren, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko ezinbesteko prebenzino-neurriei buruz.
Gotzain Kontseiluaren aholkuak (2020.eko ekainaren 9a) udaldian gazteekin egin daitekezan jarduerei buruz eta eranskina, Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritzak aholkatutako prebentzino-neurriekin.
Osasun arloko Sailburuaren 2020.eko uztailaren 15eko AGINDUA, normaltasun barrirako prozesuko Egitasmoan 3. aldia gainditu ondoren, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko ezinbesteko prebenzino-neurriei buruzko Osasun Sailburuaren 2020.eko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina aldatzen dauana.

- Kultura ondasun ez diran egurrezko altzari, banku eta ateetan, ura eta xaboi neutroa (alkoholik eta lixibarik ez) erabili.
- Gauza liturgiko modernoak ‘etanol %70’ produktuaz, edo ur eta xaboiaz, garbitu daitekez, trapu batez ondo lehortuz.
- Desinfektatzeko, beti produktu homologatuak erabili, ondarearen balio artistiko eta kulturala kontuan hartuz. Eskulturak, koadroak, erretaulak, erretaulen mahaiak, ehun urtetik gorako urregintzazko piezak, ez ikutzea da onena eta, zeozer egin ezkero, ez sekula erabili lixibarik, sodarik, amoniakorik, alkoholik edo garbigarri industrialik.

**2.- Pertsonak kokatu**

- **Ospakizunera zenbat lagun sartzen dan kontrolatu egin behar dogu?**

Bai. guztira sartzen diranen %75a sartuko da. Holan izango da araudi barria kaleratu arte.

- **Lekuak markatu egingo doguz?**

Bai. Uneoro jenteak non egon daiteken eta non ez jakin daian.

- **Ze tarte egongo da pertsonen artean bankuetan?**

Gitxienez, metro eta erdi egongo da lagun biren artean, maskara derrigorrezkoa dala eta guztira sartzen diranen %75a baino ez dala sartuko kontuan hartuta.

- **Ze tarte egongo da pertsonen artean jaunartzeko ilaran?**

Metro eta erdi.

- **Komeni da lurzoruan nondik sartu eta nondik urten markatzea?**

Bai.

- **Erabili daikegu zinta isolatzailerik bankuak eta lurzorua markatzeko?**

Ez, egurrezkoak badira. Hobe da paper moduko zinta itsasgarria erabiltea.

- **Arraskak urez beteta egon daitekez?**

Ez.

- **Urrutiko aginterik erabili daikegu pantailak bizteko?**

Bai. Baina ezinbestekoa da erabili ondoren desinfektatzea.

**3.- Prebentzino-neurriak ospakizunetan**

- **Jarri behar dogu eskuak desinfektatzeko gel-banagailurik?**

Bai. Eleizaren sarreran, jenteak sartzean eta urtetean erabili daian.

- **Eskularruak erabili behar doguz?**

Ez da derrigorrezkoa.

- **Jentea eskularruekin badator, desinfektatu egin behar ditu?**

Bai.

- **Maskara erabili behar da eleiza barruan?**

Erabilera ezinbestekoa da (bai bankuetan, bai sarrera-urteeretan eta bai jaunartzerako ilaretan be). Ospakizunean parte hartzen daben guztiek be maskara erabili behar dabe, irakurten edo hitz egiten dabenean izan ezik.

- **Jenteak itzi daikez gauzak bankuetan?**

Ez.

- **Egon daiteke abestien orrialderik, liburuxkarik, e.a., bankuetan?**

Batek baino gehiagok erabili behar baditu ez da gomendagarria.

- **Egon daiteke korurik eleizetan?**

Bai, pertsonen artean 1,5 metroko tartea gordetzen bada eta indarrean dagozan osasun-arauak beteten badira. Ahal bada, abeslari bakarra, bakarkako ahots bat edo beste eta musika-tresna bakarra gomendatzen da.

- **Eleizan dagozan irudi edo beste gauza batzuei musu emoten edo ikutzen itzi deikiegu fededunei?**

Ez da gomendagarria, kutsatzeak ekiditeko.

- **Fededunak antolatu egin behar doguz jaunartzera joateko ilarak egin daiezan?**

Bai.

- **Abestu daikegu jaunartzen dan bitartean?**

Ez. Jaunartzeko unea isilik egitea gomendatzen da.

- **'Amen' esan behar dogu komuninoa hartzean?**

Ez. Jaunartzeko banan-banako alkarrizketa ("Kristoren Gorputza". "Amen"), alkartean egingo da "Jauna, ni ez naz inor…" erantzunaren ostean eta Eukaristia isilik banatuko da.

- **Eukaristiako ministroek, eskuak desinfektatu egin behar dabez?**

Bai. Komuninoa banatu aurretik eta ostetik, abade ospatzaileak eta gainerako ministroek eskuak desinfektatuko dabez.

- **Eukaristiako ministroek, maskara eroan behar dabe?**

Bai.

- **Komulgatu daiteke eskularruak jantzita?**

Hobe da eskularru barik, baina norbait eskularruekin hurreratzen bada, kentzeko ez eskatu.

- **Liturgiarako tresnak, ospakizunean paliarekin estalita egongo dira?**

Bai.

- **Alkarri bakea emon deikeogu?**

Beste keinuren bat egitea gomendatzen da, pertsonen arteko kontaktua saihestuz.

- **Saskia pasatu daikegu dirua batzeko?**

Urteeran jartea gomendatzen da, balizko dohaintzak jasoteko. Dirua batzeko ohiko uneari eutsi gura bajako, kontu handiz egin eta saskia eskuz esku ez daitela pasatu. Ezinbesteko garbitasun-neurriak hartuko dira edozein kutsatze saihesteko.

- **Maskara eta eskularruak jantziko doguz saskietako eta kandelen bidezko oparietarako lekuetako dirua jasoteko?**

Bai. Saskitik dirua jasoten daben pertsonek maskara eta eskularruak erabiliko dabez, dirua jasotean eta zenbatzean. Kontu handiz ibili eskularruak kentzerakoan eta, kasu guztietan, nahitaezkoa da eskuak desinfektatzea txanponekin ibili ondoren

- **Zakarrontziak ipiniko doguz sarreran?**
Gomendagarria da.

## 4.- Entierro eta hiletei buruz

- **Ospatu daiteke entierro eta hiletarik?**
Bai, beti be onartu beharreko jente-kopuruari, %75ari, eta kultu publikoari ezarri dakikeozan gainerako baldintzei lotutako araudia betez. Lagun arteko tartea gordetea, maskarila nahitaez jartea eta kontaktu fisikoa dakarren keinuak saihestea ezinbestekoa dala nabarmendu.

- **Ospatu daiteke beilarik?**

Bai. Osasun Kontseilaritzaren 2020.eko ekainaren 18ko Aginduan jasoten danez, beilak era guztietako lokal publiko edo tpibatuetan egin daitekez, une bakotxean gehienez 65 lagun batuko diralarik kanpoan eta 30 lagun leku itxietan. Gogoratu maskara nahitaez ipini egin behar dala.

- **Zelan egin segizioa?**

Hildako pertsonaren ehorzketan edo errausketaren aurreko agurrean parte hartuko dauan segizioa gehienez, senide eta lagun, 75 lagunekoa izango da, bizikide izan ala ez eta horreez gainera, dagokionean, kulturako ministroa edo hildakoari dagokion sinismenea hileta-ohikuneak egitea dagokion pertsona izango da. Dana dala, osasun arloko agintariek COVID-19aren prebentzinorako ezarritako segurtasun-neurriak errespetatu beharko dira, hau da, metro eta erdiko gitxieneko segurtasun tartea gorde, maskara derrigorrez jarri, eskuak garbitu eta arnas-etiketa.

- **Hiletak gorpua bertan dala egiten diran lekuetan, zelan jokatu?**

Hilkutxa ehorztetxeko teknikoek ikutuko dabe bakarrik. Senide eta gainerako partaideek ez dabe ikutuko.

## 5.- Sakramentuak emoteari buruz

- **Ospatu daiteke jaunartze, ezkontza eta sendotzarik?**

Bai, aforoaren araudia, kultu publikoari ezartzeko gainerako baldintza eta Espainiako Gotzainen Batzarreko Batzorde Eragilearen 2020.eko maiatzaren 11ko oharrean gomendatutako berariazko arauak errespetatuz.

- **Ospatu daikegu Adiskidetzearen Sakramentua?**

Bai. Egokiena leku zabala aukeratzea da, gizarte tartea gordeteko eta konfidentzialtasunari eusteko. Nahitaezkoa da maskarak erabiltea eta eskuak desinfektatzea, bai fededunen aldetik eta bai autor-entzulearen aldetik be. Gainazalik ez ikutzea gomendatzen da eta adiskidetzearen sakramentuaren egoitza sarri garbitzea.

- **Ospatu daikegu Bateorik?**

Bai. Ohikune laburrarekin eta garbitasun neurriak muturreraino eroanda, ontzia erabiliz bateo-ura hara jausi daiten eta ez bataiarrira (hutsik egongo da bateoa emon ondoren). Olioaz igurzteko, erabilera bakarreko kotoia erabili eta ospakizunaren ostean erraustuz. Kristaugai bat baino gehiago dagoanean, garbitasun eta desinfekzino neurriak muturreraino eroan Bateo batetik bestera. Gogoratu, maskara derrigorrez jarri behar da.

- **Ospatu daikegu Sendotzarik?**

Bai. Aforoari eta gomendatutako gizarte tarteari buruzko arauak errespetatuz eta maskara derrigorrez jarriz. Olioaz igurzteko, erabilera bakarreko kotoia erabili eta ospakizunaren ostean erraustuz. Sendotza hartzen dabenak bat baino gehiago diranean, kontatu bakotxaren ostean eskuak desinfektatu.

- **Ospatu daikegu ezkontzarik?**

Bai. Arau kanonikoak eta une bakotxean indarrean dagozan osasun arauak errespetatuz. Osasun Kontseilaritzaren 2020.eko ekainaren 18ko Aginduaren arabera, ezkontzak ospatu daitekez baldin eta guztira sartu daiteken jente-kopuarem %75a gainditzen ez bada

Ezkontza-erritua ospatzean, osasun arloko agintarien ezarritako garbitasun eta prebentzinorako neurriak beteko dira, esate baterako, gizarte tarteari, eskuen garbitasunari, maskara derrigorrez jarteari eta arnas etiketari dagokienez.

- **Eraztun eta ezkontza-horniak eroan daikeguz?**

Eraztunak eta ezkontza-horniak bakarrik ezkontideek erabiliko dabez eskuetan. Senar-emazte eta lekukoen sinadurarako aurretik eskuak desinfektatzea eta euren boligrafoa erabiltea gomendatzen da. Hori ezin bada, boligrafoa erabilera bakotxaren ostean desinfektatu. Agiriak emoterakoan kontu handiz ibili.

- **Gaixoen Oliadura egin daikegu?**

Bai. Ohikune laburrarekin eta Olioa emoteko erabilera bakarreko kotoia erabiliz. Osasun arloko agintariek ezarritako babes-neurriak kontuan hartuz (maskara derrigorrez jartea, eskuen desinfekzinoa eta arnas-etiketa).

**6.- Otoitz egiteko eta Sakramentu guztiz Santua gurtzeko Eleizara joateari buruz**

- **Baimendu daiteke eleizetan sartzea Sakramentu guztiz Santua gurtzeko eta otoitz egiteko?**

Bai. Baina garbitasun eta aforoaren inguruko osasun neurriak eta eleizetarako jarraibide orokorrak bete behar doguz, jente pilaketa saihesteko. Otoitzari eta gurtzari dagokiozan eremuak markatzea komeni da. Parrokia bakotxak erabagiko dau ordutegi jakin batzuk ezartzea komeni dan ala ez. Maskara jartea ezinbestekoa da.

Markak jartea gomendatzen da, fededunek ez daiezan eleizetako ez irudi eta eskulturak, ez beira-arasak ikutu, kutsatzeak saihesteko.

**7.- Parrokietako bulego eta lokaletako jarduerei buruz**

- **Zelan garatu behar doguz jarduerak parrokietako bulegoetan?**

- Aireztatze, garbitze eta desinfektatzerako neurri egokiak hartu, bulegoaren ezaugarrien eta euren erabileraren arabera.
- Guztientzat diran leuetan guztira sartu daiteken jente-kopuruaren %60a sartuko da eta neurriak hartuko dira pilaketak saihesteko.
- Eskura jarri behar dira gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaileak.
- Ezinbestekoa da aurretik hitzordua egitea eta maskara eroatea, derrigorrezkoa da-eta jartea.
- Nahitaezkoa da maskara erabiltea jenteari arreta eskaintzen jakonean eta sakramentu-adiri eta liburuak erabilten diranean. Ziurtagiriak eta inskripzinoak egiteko sakramentu-liburuak erabili behar diranean, beti batek erabili daizala, aurretik eta ostetik eskuak desinfektatuz.
- Lagun batek baino gehiagok erabilten dituan ordenagailu eta dispositiboak desinfektatu egin behar doguz erabilera bakotxaren ostean.
- Pertsona edadetuek edo arrisku taldeetan dagozanek parrokietako bulegoetan ez daiela jarduerarik izan gomendatzen da eta, dana dala, prebentzino-neurriak muturrera eroan daitezala.

- **Batzar eta topaketak deitu daikeguz?**

Pastoral Barruti edota parrokia bakotxak erabagi ahal izango dau ze jarduerari eutsiko deutsan era birtualean. Ahal dan neurrian, telefono bideko arretari eustea gomendatzen da eta bakarrik behar-beharrezko batzarrak egitea jentearekin. Bateo edo ezkontza aurreko batzarrak deitu daitekez.

Dana dala, kontuan hartuko dira gomendatutako neurriak:
.- Parrokietako lokaletan edo antzekoetan, gehienez 25 lagun batuko dira, lagun arteko 1,5 metroko tartearekin.
.- Hitzaldi-areto edo antzoki erako lokaletan, guztira sartu daiteken jente-kopuruaren %60a sartuko da, lagun arteko gitxieneko 1,5 metroko tartea gordez (etxe berean bizi diranen kasuan izan ezik).
.- Arauak jarraitu eta eskuak garbitu eta desinfektatu
.- Nahitaezkoa da maskara erabiltea.
.- Erabilera bakotxaren ostean batzar-gela garbitu
.- Eskuz esku dabiltzan urrutiko aginteak eta dispositiboak desinfektatu
.- Aretoa aldez aurretik gordetea gomendatzen da.

- **Itzi deikiegu batzar-gelak parrokiakoak ez diren taldeei (auzotarrei, abesbatzei, e.a.)?**

Bai, indarrean dagozan neurriak, hau da, garbitasuna, nahitaez maskara jartea, desinfektatze eta metro eta erdiko gizarte tartea, zorrotz beteten badira eta gainazalak, eserlekuak, heldulekuak, etengailuak, e.a., kontu handiz garbitzen badira. Batzarra deitzen dauan taldea arduratuko da batzarraren ostean gela garbi eta desinfektatuta geratu daiten, eta beti egongo da arduradun bat arauak bete daitezan.
Ez dira dagokion gelan guztira sartu daiteken jente kopuruaren %50a gainditzen daben taldeak batzartuko.

**8- Bisita turistikoei eta bisita gidatuei buruz**

Kultu-etxeetan bete behar diran garbitze, aireztatze eta desinfektatzerako neurriez gainera, bisita turistikoak onartzen dabezan eleiza, ermita, santutegi eta eremu erlijiosoetan Osasun Kontseilaritzaren 2020.eko ekainaren 18ko Aginduan, guztira sartu daiteken jente-kopuruaren %60a sartzea baimenduz, jasotakoa eta berau aldatzen dauan 2020.eko uztailaren 15eko Aginduan jasotakoa kontuan hartuko da. Ezinbestekoa da maskara erabiltea

- **Zenbat lagun hartu daikegu bisita bakotxean?**

Taldeetan ez da 30 lagunetik gora egongo eta lagunen artean beti gordeko da metro eta erdiko gizarte tartea. Ezinbestekoa da maskara erabiltea.
Eraikinaren ezaugarriak dirala-eta, aforoa %60ra murriztuta be gomendatutako tarterik gorde ezin danean, lagunen arteko segurtasun tarteari eustea lehenetsiko da gehienez zenbat lagun sartuko dan ebazterakoan.

- **Gidariek eta bisitariek eskuak desinfektatu behar dabez?**

Bai. Bisiten aurretik eta ostetik.

- **Parrokiako boluntarioak izan daitekez gidari?**

Bai, baina garbitasun arauak bete, maskara derrigorrez jarri eta gizarte tartea gordeko dabe.

- **Talde bakotxak bere gidaria badakar, garbitasun neurriak bete eta gizarte tartea gorde behar dabe?**

  Bai.

- **Bisitariek maskara eroan behar dabe?**

Bai, beti.

- **Eleizetan ibilbidea egiteko zirkuituak markatu daikeguz?**

Bai. Metro eta erdiko gizarte tartea bermatzeko, baina sakelakoan aktibatzen diran audio-gidak badagoz be.

- **Ezarri daikegu tarterik kultura ondasunetatik, beira-arasetatik, e.a.?**

Bai. Holan ez dabez ikutuko eta ez dira kutsadura-iturri izango.

- **Banatu daikegu liburuxka edo antzekorik?**

Jarduera garatzen dan bitartean ez da audio-gida, liburuxka edo eskuz esku ibili daiteken antzeko materialik banatuko. Audio-gidarik egon ezkero, ahal bada, egokitu eta lagun bakotxaren sakelakoan aktibatu daitela.

- **Oroigarriak, estanpak, e.a., saltzen diran dendetan, aparteko neurririk bete behar dogu?**

Gomendatutako garbitasun eta desinfekzino neurriak bete behar dira eta lagun arteko metro eta erdiko tartea gorde.

- **Eta bisita bakotxaren ostean, garbitu eta desinfektatu egin behar da?**

Bai. Eta kontuan hartu behar dira historia-arte ondarerako eta kultura ondasunetarako beren-beregi hartutako arauak.

**9- Bisita turistikoei eta bisita gidatuei buruz**

- **Antolatu daikegu pastoral jarduerarik gaztetxo eta gazteen taldeekin?**

Bai. Baina Euskadiko Autonomia Erkidegoan gaua emotea dakarren jarduera edo kanpamenturik ez antolatzea edo probintzia arteko joan-etorria eskatzen daben jarduera edo kanpamentuetan ez parte hartzea gomendatzen da. Gotzain Kontseiluak 2020.eko ekainaren 9an emondako aholkuak eta Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritzak argitaratutako eranskinak kontuan hartuko dira.

**Bilbao, 2020.eko uztailaren 16a**

**Erreferentziak**

https://conferenciaepiscopal.es/wp-content/uploads/2020/04/Medidas-reinicio-culto-p%C3%BAblico-en-templos-cat%C3%B3licos.pdf

https://conferenciaepiscopal.es/celebracion-de-la-iglesia-en-las-fases-de-desescalada/

https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/03/pdfs/BOE-A-2020-4789.pdf

https://boe.es/boe/dias/2020/05/16/pdfs/BOE-A-2020-5088.pdf

https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/30/pdfs/BOE-A-2020-5469.pdf

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/05/2001983a.shtml

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002212a.pdf